

**EUSKAL ZINEMAREN EGUNA.** Film laburrak ikusteko sarrerak berehala agortu ziren

# Euskal aktoreak industriaren zati direla aldarrikatu dute Zinemaldian

Euskal Aktoreen Batasunak promozio liburua, bideoa eta web orrialdea aurkeztu zituen

Ainhoa Oiarzabal | **DONOSTIA**

Euskara gutxi entzun zen atzo Euskal Zinemaren Egunean. Ikuska sortako lan batzuk eta *Karramarro uhartea* izan ezik, gaztelaniazko lanak ziren atzoko egunerako atondu zituzten Principe aretoetan ikusi zirenak. Goizean ez zen jende asko hurbildu, arrakasta arratsaldean eskaini ziren film laburrek erdietsi zuten; sarrera guztiak amaitu ziren. Lan horietako asko ingelesez azpidatzirik aurkeztu zituzten.

Euskal aktoreek bete zuten atzo protagonista papera. «Egunotan Donostian elkartzen diren nazioarteko profesionalen aurrean eta hemengo industriaren zati gisa Zinemaldian parte hartzeko eskubidea dugu», adierazi zuen Arantxa Gurmendi aktoreak Euskal Ak-

toreen Batasunaren izenean (EAB). Aktoreen esku-hartzea euren lanaren berri emateko promozio materiala aurkeztea izan da, komunikabide eta ekoiztetxeen artean banatzeko. «Azken sei urteotan kaleratu izan dugun promozio material horri esker Espainiako ekoiztetxe askotatik deitu digute. Hala ere, hemengo erakunde politikoek diru publikoarekin egiten dituzten proiektuetan kontuan hartzea nahiko genuke». Hitz horiek entzun eta txalotu zituzten Maria Cristinan bildu ziren Loinaz Jauregi, Irene Etxeberría, Jox Berasategi eta Kandido Uranga aktoreek, besteak beste.

## Internet bidez lan eskaintzak

Berrehundik gora aktoreen argazkia eta telefonoarekin argitaratu duten liburua azken sei

## EUSKARAZKO FILMAK

Ikuska sortako lanak eta 'Karramarro uhartea' soilik eskaini ziren euskaraz

## AKTOREEN ESKAERA

Euskal Herriko erakunde publikoei euskal aktoreekin gogoratzeko eskatu zieten

urteotan egin dutenaren antzekoa da. Interneten [www.actores-vascos.com](http://www.actores-vascos.com) web orrialdean paratu duten informazioa, ordea, berria da. Euskal aktoreei buruzko informazioa lau haize-

tara zabaltzearekin batera, euren eskubideei buruz galdegiteko aukera eskaintzen zaie. «Garantzitsuena, ordea, EABra iristen diren lan eskaerak aktoreei helarazizko dizkiegula da. Hau da, eskatzen dituzten ezaguriak betetzen dituen aktoreari bidaliko diogula mezua».

Azken promozio materiala, bideo *casting*-a, Ramon Bareak zuzendu du aurten: «Aktore guztiei elkarriketa berbera egin diet, eta bakoitzak erantzun desberdinak eman dizkit. Erantzun horiek testuingurutik aterata jarri ditut bideoan, aktorearen keinu naturalak agerian jartzeko». Hala ere, aktoreen fikziozko keinuak ere sartu ditu bideoan, ikus dadin bakoitzak egiten duen lana.

Fikzioa gorpuzten duten errealtateko aktoreek Rotondako jaiarekin amaitu zuten eguna.

## Ewan Mc Gregorri argazkia ateratzeko zailtasunak

Une batetik bestera aldatzen da Zinemaldiko plangintza. Izan ere, azken unea arte ezin da ziurtatu zein eta noiz etorriko den. Atzo hitzordua baino bi ordu lehenago etorri zen Donostiara *Moulin Rouge* filmeko protagonista Ewan Mc Gregor aktorea. Hori dela eta, bertan behera utzi zuten ordu berean *Butterfly Smile* filmeko partaideei argazkia ateratzeko eginiko deialdia. Baina argazkilariei ez zieten azaldu arrazoa, eta ondorioz, gehienak Mc Gregorri argazkirik atera gabe gelditu ziren eta *Butterfly Smile*-koei, berriaz, ordubete itxaron ondoren atera zieten.

## MEDIA egitasmoa Europako ikus-entzunezko industriaren alde

400 milioi euroko diru laguntza emango die datozen urteotan MEDIA egitasmoak Europako sortzen diren ikus-entzunezko produktuen egileei. Europar ahula den industria hori indartu nahi du egitasmoak, eta ekoiztetxei emango dizkiete laguntzak. Hala ere, dirua jasotzeko telebistari saldu behar dizkio honek antena eskubideak. Bestalde, abian jarri duten *Mugarik gabeko telebista* proiektuari esker telebistek Europar egiten diren fikziozko ekoizpenetan dirua jarri behar dute.

## Zinemaldiko kamisetak eta liburuak asko saltzen ari dira

John Wayne ageri den Zinemaldiko irudi ofiziala duten kamisetak nahiz Zabaltegi kamiseta gorriak etengabe ari dira saltzen; neurri batzuk jada agortu egin omen dira. Halaber, Otar Iosseliani eta Frank Borzageri buruzko liburuen salmenta ere ona ari da izaten. Zinemaldiko katalogoa da, ordea, gehien saldu den liburua.

## Euskal 'glamour'-a Maria Cristina hotelean

EEBBetako izarrek etorri ez direlako aurtengo Zinemaldian *glamour* gutxi izango zela aurreratu zuten antolatzaileek. Hala ere, atzo Euskal Zinemaren Eguna zela eta euskal aktore ezagun ugari elkartu zen Mari Cristinan: *Hasiberriak* telesailako Manex Rekarte eta Naiara Etxeberría, Dorleta Urreta-bizkaia, Kandido Uranga...



GARI GARAIALDE

## Montxo Armendariz zinemagileak jaso du Ama Lur saria

Euskal Zinemaren Ama Lur saria atzo iluntzean eman zioten Montxo Armendariz zinemagile nafarrari. Bere ibilbide profesional oparogatik eman zioten saria Ibaiek eta EITBk antolaturiko egunean Euskal Aktoreen Batasunak, Gidoigileen Elkarteak,

Errealizatzaile Berrien Elkarteak, Animaziozko Ekoizleen Elkarteak eta Euskadiko Filmategiak. Egun osoan zehar euskal zinemari eskainitako saioak hartu zituen Principe aretoan izan zen sari banaketa. Ondoren, Armendarizen azken lana *Silencio roto* filma

eskaini zuten leporaino beterik zegoen aretoan. Bestalde, hirugarren urtez ekoizpen independente eta ausartari Ibaia saria eman zioten atzoko ekitaldian. *Télécep*/La Sept Art ekoiztetxeak jaso zuen berori *Nationale* 7 filmagatik.